




6. ARIKETA: IGOGAILUA

Elementuak:

- **Igogailu bat.** Igogailuak gora $M+$ edo behera $M-$ mugitzeko motore bat dauka. Solairu bakoitzean sensore batek adierazten du igogailua bertan dagoen edo ez.
- **3 garraio-zinta:** 1go eta 2. solairukoak irteerakoak eta 3. solairukoa, sarrerakoa.
- **Bi zilindro** efektu sinplekoak **Zil1** eta **Zil2**, piezak igogailutik, solairu bakoitzeko garraio zintara eramateko.
- Sentsore multoa:
 - Igogailua zein pisuan dagoen adierazteko **spi1**, **spi2** eta **spi3**.
 - Zinta bakoitzean piezarik dagoen jakiteko **pc1**, **pc2** eta **pc3**.
 - Pieza igogailuan dagoela adierazteko **pieza_igogailuan**.
 - Zilindroek piezak igogailutik garraio zintara atera dituela adierazteko **ig2** eta **ig1**.



Prozesuaren deskribapena:

Prozesua m pultsagailua sakatzerakoan hasiko da. Hasieran igogailua 3. solairuan egongo da eta kanporaketarako garraio zintetan pieza bat baldin badago, pieza hien kanporaketa egin behar da (kanporaketa-denbora optimizatuz).

Pieza berriak 3. solairutik heltzen dira eta irteera bigarren edo lehenengo solairutik izango da. Piezen irteera alternatiboa izango da: lehenengo pieza 1go solairutik, bigarrena 2. solairutik, hirugarrena 1go solairutik eta horrela piezak bukatu arte.

Prozesua azken pieza garraio zintan jartzen denean eta igogailua 3. solairuan dagoenean amaituko da.